



ALBOAN

www.alboan.org



# Lankidetzaren deszentralizazioa eztabaidan



Cooperación Descentralizada Lankidetzaren Deszentralizazioa



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

## **ALBOAN Lankidetzak koadernoak**

1. Lankidetzak deszentralizatua eztabaidan
2. Eraginkortasunari esanahi berria ematen. Gure proposamena
3. Mundua aldaketa sakonean. Lankidetzaren esparruko erakundeen testuinguruari eta erronkei buruzko hausnarketa
4. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: euskal lankidetzak deszentralizatua instituzionalizazioaren eta krisiaren artean
5. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: hezkuntza mobilizazioarekiko sentsibilizazioa garatzeko
6. Zenbait gakoren bila, lankidetzak deszentralizatua eta jarduera humanitarioa hobetze aldera
7. Espezializatu al daiteke lankidetzak deszentralizatua deszentralizaziorako laguntzan?
8. Tokiko eta eskualdeko garapen ekonomiko alternatiboko prozesuak. Lankidetzak deszentralizatuaren apustua
9. Generoaren eraginkortasuna; edo generoa, eraginkortasunaren ikuspegia oinarri hartuta
10. Bide-laguntza, eraginkortasunerako gako

# Lankidetza deszentralizatu eztabaidan



Argitaratzailea:

**ALBOAN**

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo

Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea

Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308

Andia, 3 • 20004 Donostia

Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267

Estenaga Monsinorea, 1 • 01002 Gasteiz

Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676

[alboan@alboan.org](mailto:alboan@alboan.org)

[www.alboan.org](http://www.alboan.org)

Egileak: José Ignacio Eguizábal, Alicia Aleman Arrastio

Itzulpena: Bakun

2013. urtea

Azala: Muxotepotolobat

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Imprimaketa: Lankopi, S.A.

---

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburua apaitzen baldin bada.

## Aurkezpena

Lankidetzaren deszentralizatuaren eraginkortasunari buruzko koadernoaren bilduma honen xedea da ahaztuta dagoen, edo, gutxienez, gerorako utzita dagoen eztabaida bat biziberritzea nazioarteko lankidetzan diharduten erakundeen artean. Lankidetzaren deszentralizatuaren **kalitateari eta eraginkortasunari** buruzko gaiak baztertuta geratu ziren orain dela hiru urte, nazioarteko lankidetzarako politika publikoen etengabeko eta ondoz ondoko aurrekontu-murrizketen ondorioz, maila guztietan. Gaur egun, ordea, lankidetzaren deszentralizatuaren etorkizunari buruzko gaiak jardutea inoiz baino **egokiagoa** da.

Murrizketen eraginez, kasu askotan nazioarteko lankidetzarako politika **deuseztatu** da. Esate baterako, bost autonomia-erkidegok % 99tik gora murriztu dituzte nazioarteko lankidetzarako aurrekontuak lau urtetan. Gure inguruan, kasu adierazgarriena Nafarroako Gobernuarena da, % 80ko murrizketa egin baitu nazioarteko lankidetzan. Aitzitik, Nafarroako Gobernuaren arlo guztietako gastuak kontuan hartuta, % 20 baino gutxiagoko murrizketa egin du. Tamalez, ezin dugu esan eraispen hori salbuespena izan denik; zenbait administrazio deszentralizatuk bide hori hartu dute. Are gehiago, **lankidetzan murrizketak egin dituzten ia erakunde guztiek proportziorik gabe aplikatu dituzte**. Guztirako gastu publikoari eutsi zaion tokietan eta % 10eko edo 15eko murrizketak egin diren erakundetan, hain zuzen, nazioarteko lankidetzarako aurrekontuetan % 35etik 75era bitarteko aurrekontu-murrizketak egin dituzte. Salbuespen bakar batzuetan soilik, adibidez Donostiako Udalaren kasuan, aurrekontu publikoen araberrako ahalegina egin dute eta horri eutsi diote denboran zehar.

Azpitarratu behar da politika publiko horren berezitasuna dela sortu zenetik **autoerregulazio**–mekanismoak aintzat hartu dituela, erabiliko diren baliabideak erabakitzeke, eta oso erakunde gutxi dute horrelako sistema. Giza garapenaren

alorrean oro har egindako ahalegina multilateralala izan denez, 8oko hamarkadan sortu zenetik, barne-produktu gordinaren edo aurrekontu publikoen portzenta-jeak erabili dira helburu kuantitatiboak neurtzeko. Horrenbestez, gizarte batek bere aberastasun-maila murrizten badu, eta, horren ondorioz, politika publiko-etarako aurrekontuak murrizten baditu, erakundeek eta gizarte zibilak berak ere doitze proportzionala egin behar dela onartzen dute. Alabaina, krisialdiko urte hauetan ez dute errespetatu itun sozial hori, zenbait kasutan legez ezarrita zegoena (Euskadin, esate baterako, 2007an hala ezarri zen).

Begien bistakoa da nazioarteko lankidetzarako politiken aurrekontuei emandako tratamendu horrek **ondorio larriak** eragin dizkiela politika horien helburu eta hartzaile diren pertsoneri eta prozesu horretan parte hartzen duten eragile guztiei. Egoera hori gertatu da, hain zuzen, politiken, estrategien eta jardueren kalitatea berrikusteko garaian, garapenerako laguntza ofizialen eraginkortasunari buruzko eztabaidaren nazioarteko testuingurua dela-eta. Horrenbestez, bide horretan aurrera egiteko lanak **moteldu** egin dira, eta, batzuetan, bai eta **gelditu** ere.

Murrizketa horiek direla-eta, erakundeen diskurtso politikoa, alderdietatik haratago, honako ardatz hauen ingurukoa izan da: egoera ekonomiko larria, gure gizartearen premia handiak, eta, horrenbestez, hartutako erabakiak **halabeharrezkotzat** jotzea. Are gehiago, erabil daitezkeen baliabideen gaia modu hain simple eta gezurrezkoan amaitutzat jo ondoren, proposamen ofiziala hau izan da: eskura dauden baliabideak baino ez ditugu; hortaz, gehiago egin behar da, gutxiago baliatuta (eraginkortasun handiagoa), lehen genituen helburu berak baititugu (pobrezia desagerraraztea, garapen-helburuak eta abar). Esatea errazagoa da, egitea baino.

Etorkizunari begira, adierazi behar dugu, azaldu dugun diskurtso ofizial horren aurka, diru-kopurua eta eraginkortasuna lotuta daudela eta ezin direla bereizi; izan ere, baliabide gutxiago izateak gaitasun gutxiago izatea dakar, eta gaitasun gutxiago izateak emaitza okerragoak lortzea dakar, bai irismenari, bai sakontasunari erreparatuta. Lankidetzeta deszentralizatuak bere buruan uste osoa izan behar du berriz ere, administrazio publikoetatik hasita, eta bakoitzaren ahalmenaren eta **konpromiso etiko eta politikoaren** arabera aurrekontu-zuzkiduren bidez egiaztatu behar du. Gizarte zibiletik aurrerantzean ere bultzatuko dugu administrazio bakoitzaren aurrekontu publikoaren % 0,7 baliatzeko helburua, eta horren ondoren, aberastasunaren % 0,7 baliatzeko helburua. Horrek 2013an dauden baliabideak bikoiztea eta hirukoiztea ekarriko luke.

Baina, bistakoa da, alderdi kuantitatiboa ez ezik, beste alderdi batzuk ere kon-tuan hartu behar ditugula. Izan ere, diru-kopurua garrantzi handikoa da; baina, gutxieneko batzuk eta etorkizunerako aurreikuspenak bermatuz gero, lankidetz-a deszentralizatuaren kalitatea ez dago, nagusiki, erabil daitezkeen baliabideen mende.

Deskribapen kualitatiboagoa eginez, gizarte zibil antolatuan nagusiki oinarritu-tako lankidetz-a deszentralizatua dugu abiapuntu; zehazki, askotariko **garape-nerako gobernuz kanpoko erakundeen (GGKE) ekimen solidarioak**. Espainiako estatuan, lankidetz-a deszentralizatua gauzatzeko aukera horren jardunbidea eta gobernu zentralarena desberdinak izan dira. Berariazkoztatun hori dela-eta, lankidetz-a deszentralizatuak elkartasun-printzipioak ditu oinarri, gure gizartea eta proiektuen helburu diren gizarteak eraldatzea xede duen ikuspegi politiko-tik abiatzen da, eta zaurgarritasun handiko egoeretan dauden pertsonak aintzat hartzen ditu lehentasunez eta zuzenean.

Alboko ondorio onuragarri gisa, Espainiako lankidetz-a deszentralizatuak sendo-tu du, hoguei urteotako jardunean, nazioarteko lankidetz-a helburu duen gizarte-ehun antolatua. Testuinguru horretan pertsonak garatu dira, lankidetz-a xede duten profesional gisa jardunean, elkartasun-balioak oinarri hartzen dituen lan-kidetzari begira, eta kultura eta gizarte alternatibo justuago eta solidarioago ba-ten ideia eta praktika hedatzea helburu hartuta. Estatu osoko milaka pertsonak osatutako giza talde horrek, kontratatuak eta boluntarioak barnean hartuta, **lan-kidetzaren giza dimentsioa** bultzatu du. Gizartetik gizartera bideratutako lanki-detza da, ikuspegi teknokratikoetatik aldentzen dena; izan ere, ikuspegi horiek askotan laguntzaren kudeaketari lotutako gaiei arreta gehiago ematen diete, Hegoaldeko zein Iparraldeko gizarteetan bultzatu nahi dugun giza garapenari eta beharrezkoak diren eraldaketei baino.

Alabaina, horrela eraturako lankidetz-a deszentralizatuak **mugak** izan ditu. GGKE-en bidez lan egiteari lehentasuna emateak<sup>1</sup> praktikan ekarri du baliabideak estra-tegikoki ez bideratzea politika publiko bateratuen arabera. Horrenbestez, zaila da argi eta garbi antolatzea administrazio publiko deszentralizatuen politikaren helburu, emaitza eta inpaktuak. Baliatutako tresnek –funtsean, irabazi-asmorik gabeko eragileen proposamenen arteko lehiaketak baliatuta emandako diru-

---

<sup>1</sup> Lankidetz-a deszentralizatuak % 50etik % 90era bitarteko portzentajeak kudeatu ditu GGKE-en bitartez, eta batez beste-koa % 80 ingurukoa izan da; gobernu zentralaren lankidetzak, berriz, ez du inoiz % 15 gairiditu. Guztira, Garapenerako Laguntza Ofizialak bere baliabideen % 18-20 kudeatu ditu GGKE-en bidez.

laguntzek– eragin dute, praktikan, administrazio publiko deszentralizatu baten lankidetz-politika, azken finean, diruz lagundutako eragile guztien estrategien batura izatea. Hor sortzen da, hain zuzen, lankidetz deszentralizatuari askotan egozten zaion dispersioa.

Egoera hori ikusita, batzuek eskatzen dute baliabideak beste modu batean bideratzeko, administrazio zentralaren eskuetan kontzentratuta, haren estrategia egikaritzeko gaitasun handiagoa lortze aldera, teoriarik behintzat. Bide horrek, zalantzarik gabe, lankidetz deszentralizatuaren desagertzea garamatza, eta desagertuko liriteke, halaber, haren onura ukaezinak, lehen labor-labor aipatu ditugunak.

Beste batzuek planteatzen dute, lankidetzarako esleitutako bitartekoei dagokienez, administrazio deszentralizatuaren **lankidetz zuzenak** gero eta protagonismo handiagoa izatea, eta irabazi-asmorik gabeko eragile pribatutan (gehienak GGKEak)<sup>2</sup> egituratutako gizarte zibilaren bitartez kudeatzen diren baliabideak, orain arte nagusi izan direnak, pixkanaka murriztea. Ikuspegi hori bultzatu zuten jada krisiaren aurreko urteetan lankidetz-agentzia deszentralizatu batzuek –esate baterako, Kataluniakoak– eta baditu zenbait onura, honako baldintza hauek betetzen badira: lankidetz zuzenak gehieneko muga jakin batzuk ez gaititzea (% 30 baino txikiagoak betiere), administrazio bereko beste arlo batzuetako giza baliabideak baliabide ekonomikoak eta ezagutzak palanka gisa erabiltzea helburu duten ekintzak izatea, eta lurralde zehatzetan urteetan GGKE-ek abian jarritako jarduerekin lotzea.

**Gure aldetik, bilduma honetako koadernoetan azalduko dugu gure apustua: ekintzaren eraginkortasunaren neurria gizarte zibil antolatuaren eta administrazio publikoen arteko aliantzan jartzen duen lankidetz deszentralizatuaren ikuspegia, lehengo indarguneen gainean gotorleku berriak –batez ere gizarte zibilaren inplikazioan eragiten dutenak– eraikiko dituenak, tokiko garapen eta garapen global gizatiarrago bat lortzeko bidean konpromisoa bere gain hartuko duen herritartasun globalaren kontzientzia sortze aldera.**

Nola egin? Gizartearen parte-hartzea, eragile desberdinen artean konbergentzia-guneak aurkitzea helburu hartuta, eta eragile horien arteko lankidetz, zalantzarik gabe, egungo indarguneak sendotzeko eta beste batzuk sortzeko bidea

---

<sup>2</sup> Aurrerantzean, testua arinagoa izan dadin, GGKE irakurtzean ulertu behar da garapenerako nazioarteko lankidetzan diharduten irabazi-asmorik gabeko eragile pribatuen multzoak ari garela.



izango da. Ondorengo lerroetan hiru ibilbide proposatuko ditugu, lankidetzaren eraginkortasuna hobetzeko bidean aurrera egiteko, giza garapenaren prozesu beti amaigabeen eta xede mugaezinean laguntze aldera.

Lehenik eta behin, **lankidetza deszentralizatuaren administrazio arduratsuak bertikalki antolatzearen aldeko apustua egin beharko luke**. Gobernu autonomikoek eta toki-erakundeek, GGKE-ekin estrategikoki lankidetzan jarduteko ikuspegia partekatzen dutela kontuan hartuta, lankidetza hori sendotuko duten estrategiak antolatzeko erantzukizuna dute. Ahalmen, tamaina eta irismen desberdinetako erakundeekin harremanak izan beharko lituzkete, gizarte-ehuna gero eta sendoagoa izan dadin, bai tokiko mailan, bai maila autonomikoan, bai estatu-mailan. Halaber, eragile publiko zein pribatuen arteko egituraketa bultzatu beharko litzateke. Gero eta beharrezkoagoa da GGKE-ekin batera hausnarketa egitea, ondorioak atera eta aplikatzeko, bakoitzaren berariazko zereginetan sakontze aldera.

Euskal lankidetza-sistema gisa eztabaidatu eta **2015. urtearen ondorengo** garapen-agendarekin lerrokatu behar gara. Horrenbestez, amaitu gabe dagoen agendari egingo diogun ekarpena definitu behar dugu, eta garapen deszentralizatuak parte hartu behar du jada zabalik dauden eztabaida handietan. **Giza eskubideak** ardatz hartzen dituen agenda bultzatu behar dugu, 2015. urtearen ondorengo konpromiso eta akordioak bideratzeko. Halaber, garapenerako **politiken koherentzia** bultzatu behar dugu, zalantzarik gabe, **desberdintasunari** buruzko eztabaidari arreta eman behar diogu, eta egile anitzeko eta **maila anitzeko lankidetza-politikaren** eraikuntzan parte hartzea sustatu behar dugu.

Hortik aurrera, GGKEok espezializatu beharko dugu, bai garapenerako hezkuntzan, bai nazioarteko lankidetzan, eta gure zeregina bete beharko dugu, lankidetzeta-sistema honetan lankide ditugun eragileekin koordinatuta.

Bigarrenik, **administrazioak beste baliabide propio batzuk abian jarri beharko lituzke (giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta ezagutzak) Hegoaldeko homologoak sendotzeko**. Lankidetzeta-politikan zuzenean inbertitutako baliabideak, orain ezagutzen ditugun modukoak, nazioarteko lankidetzaren zatirik txikiena izan beharko lirateke etorkizunean, eta beste sail batzuen bidez (ogasuna, osasuna, hezkuntza, lurralde-garapena eta abar) Hegoaldeko toki-administrazioekin eta estatu-maila baino beharagoko administrazioekin egindako ezagutza – eta langile-trukeek protagonismo handiagoa izan beharko lukete, lankidetza horiek garatzeko

ardura izango duen gobernu-funtzioaren bitartez koordinatuta. Guztion onurarako aplikatu beharreko politika publikoak eta haietan gizarte zibilak parte hartzeko metodologiak aztergai hartuta, Hegoaldeko administrazio deszentralizatuekin batera egindako hausnarketak oso baliagarriak izango dira. Lagungarriak izango dira gure administrazio deszentralizatuaren politika publikoen koherentzian benetan aurrera egiteko urratsak emateko, gizaki guztion garapena azken helburutzat hartuta, eta administrazioaren edozein arloko politika publikoak helburu horretarako antolatuta.

Lankidetzaren dimentsio hori garatzeko bidean, garrantzi handikoa izango da nola bateratuko den GGKE-ek berariazko lurralde batzuetan abian jarritako estrategiekin, elkarren osagarri diren bi norabide aintzat hartuta. Alde batetik, GGKE-ek oinarritzko gizarte-zerbitzuak ematen dituzte halakorik gabeko tokietan, eta ikuspegi horren arabera, oinarritzko gizarte-zerbitzu horiek zerbitzu publiko bihurtzeko prozesua lastertu daiteke. Bestetik, gaur egun GGKE-ek gizarte zibilaren gaitasunak garatzeko lanean dihardute, gizarte zibil hori eskubideen jakitun izan dadin, norberaren giza garapenaren eragile, eta erakundeen bidez politikoan parte har dezan. Ikuspegi horretatik, beharrezko gaitasunak garatu ahal izango dira administrazioetan, partaidetza hori bideragarria izan dadin.

Eta hirugarrenik, amaitzeko, **aurreko dimentsioak sendotu ostean, garapenean laguntzeko ahalegin honetan jarduteko eragile gehiago deitzeko unea** iritsiko da. Irabazi-asmoa duen sektore pribatuak, produktuen eta zerbitzuen kontsumoaren bidez herritarren bultzada duenak, eta politika publikoen bidez araututa dagoenak, zenbait eginkizun ditu. Alde batetik, bakoitzaren politikak eta praktikak egokitzea, pertsona guztien giza garapenaren balioen arabera. Gizarterantzukizuna aintzat hartzen duten benetako politikak ezartzea (politika fiskala, erosketa etikoa, dagozkion pertsonen garapenari arreta ematea eta abar) garapenerako lehen ekarpena da, eta horrenbestez, lankidetzan emandako lehen urratsa da, batez ere urrats hori nazioartean ezartzeko emanez gero. Administrazio publikoen eta nazioarteko lankidetzako irabazi-asmorik gabeko eragileekin elkarrekin osagarri diren aliantza handiak –baliabide gehiago ekarriko dituztenak– begi onez ikusiko ditugu, nazioarteko lankidetzaren printzipioekin bat badatoz, batez ere doakotasunari erreparatuta.

Amaitzeko, laburpen gisa, lankidetzaren deszentralizatuak etorkizunean izango duen eraginkortasunerako lehen urratsa da **eredu horretan sinestea**, haren **berariazkotasuna** aintzat hartzea, eta behar diren **gutxieneko baliabideez** hornitzea. Oinarri hori sendotu ostean, irabazi-asmorik gabeko egile publiko

eta pribatuen egituraketa bertikalaren bidez, eta gobernuko agintaritza gorenak lideratutako politika koherente batean beste baliabide publiko batzuk pailanka gisa erabilia, politika horiek behar duten sendotasuna lortuko da, azken urratsari heldu aurretik: gainerako eragile pribatuei dei egitea, aurreko guztia lortzen den bitartean alde aurreko zeregin batzuk dituztela kontuan hartuta. Emaitzak, giza garapenari dagokionez, sendotuko dira, ia nahi gabe.

**José Ignacio Eguizábal** (Director – Fundación **ALBOAN**)



## Laburpen exekutiboa

Koaderno-bilduma hau **ahalegin kolektibo** baten emaitza da, eta hainbat erakunde eta pertsona (Iparraldekoak zein Hegoaldekoak) parte-hartzaile izan dira, **ALBOANek** lankidetzaren deszentralizatuari buruz 2010-2013 epealdian antolatutako berariazko mintegi eta jardunaldi batzuen inguruan bilduta.

Giza garapena eta garapen hori sustatzen (edo higitzen) duten politikak bultzatzen dituen makineriaren zati txiki bat baino ez da nazioarteko lankidetzaren Oinarri hori abiapuntu hartuta, lankidetzaren deszentralizatuaren eraginkortasun eta kalitateari buruzko eztabaidan parte hartzen du **ALBOANek**. Hau da, **gure mugak eta munduaren konplexutasuna aitortzen ditugu**, abiapuntu gisa, eta horrenbestez, apaltasunez jokatzeko dugu, **gizartea eraldatzeko prozesuetan** egile bakoitzak (gobernu zentral eta deszentralizatuak, gizarte zibila, nazioarteko erakundeak, GGKEak, gizarte-mugimenduak eta abar) benetan dugun egitekoa kontuan hartuta.

Horrenbestez, gure lehenengo proposamena da eraginkortasunaren agenda **uler-tzea eta benetan duen esanahia adieraztea**. Lankidetzaren deszentralizatuaren parte hartzen duen erakundea garen aldetik, gure esperientziaren bidezko ekarpena egin nahi dugu. Zehazki, euskal lankidetzaren parte hartzen dugu, honako ezaugarri hauek dituen testuinguruan: krisia, funtsen desagertzea, eta eraginkortasunari eta kalitateari buruzko jatorrizko eztabaida jarrera erretoriko eta defentsiboetara desbideratzea. Koadernoak deskribatzen du eraginkortasunari buruzko nazioarteko eztabaidaren **ibilbidea** (laguntzatik garapenera) eta ateratzen duen ondorioa da galdera asko daudela, bai ibilbide horri buruz, bai eta lankidetzaren eta garapeneraren nazioarteko testuinguruari buruz ere. Parisen eta Accran adostutako agenda (alegia, agenda teknokratikoena) ezartzeko prozesuan aurrerabideak oso astiro egiten ari direla nabarmentzen da, eta gizarte zibileko erakundeek eragiteko

gaitasuna eta ibilbidea aitortzen dira. Izan ere, eraginkortasunaren foroaren inguruan bilduta, eztabaidaren eremua zabaltzea lortu dute (laguntzaren eraginkortasunetik garapen eraginkorrera) eta Garapenerako Lankidetzaren Eraginkorrerako Munduko Aliantzaren negoziazio-mahaian eseri dira. Baliotsua izan da, bereziki, gizarte zibileko erakundeek garapenaren eraginkortasunari buruz egindako hausnarketaren barne-eginkizuna. Horrenbestez, gizarte-eraldaketaren lanak dakartzan inplikazio **sakonak** aztertu ahal izan dira. Amaitzeko, azpimarratzekoa da Busanen lortutako konpromiso batzuk adieraztean nabarmendutako **anbiguitasuna**, eta berriki sortutako lankidetzaren batzuen epelkeria, garapen eraginkorrerako nazioarteko agenda hori aintzat hartzeari dagokionez.

Espainiako lankidetzaren deszentralizatuari erreparatuta, oso aldakorra izan da, eta aldakortasun hori nekez uztartzen da eraginkortasunarekin eta kalitatearekin. Bai funtsen bat-bateko hazkundea –esparruak eta plangintza-tresnak ugaltzearekin batera– bai ondorengo beherakada, eraginkortasunaren funtsezko elementu baten aurka ageri dira, ez baitziren aurreikusteko modukoak (funtsei zein politikei begiratuta). Horrenbestez, oso zaila izan da eraginkortasunaren printzipioak (jabetzea, harmonizatzea eta lerrotzea) abian jartzea. Egonkortasun falta horren arrazoi sakonak lotuta daude politika publiko gisa dituen **berezko ahuleziarekin** eta **gabezia estrukturalekin** (araudiaren eta plangintzaren arteko jauzia eta koordinazio falta). Euskal lankidetzak ere ahulezia horren sintomak ditu, bai eta gabezia estrukturalak ere. Hala eta guztiz, **aurrera** egin du, **hobekuntzak** sartuz eta ikasbideak urratuz, 25 urteko ibilbidean. *Zalantzarik gabe, ziklo bat amaitu da, euskal lankidetzarentzat ez ezik, lankidetzaren deszentralizatuarentzat, oro har*; baina norvegiar lankidetzari aplikatuta berriki egindako adierazpen bat ere balioduna da: *funtsezkoenak, azkenean, irauten du*. Hau da, orain ere baliozkoa da toki-esparruetan garapen-erakundeak lortze aldera **gizarte zibilaren eta gobernu deszentralizatuen** artean eraikitako lankidetzaren deszentralizatuaz jardutea. Halaber, oraindik indarrean dago **herritartasun globala** sustatzeko eta **politiken koherentzia** handiagoa praktikan jartzeko duen potentziala. Amaitzeko, koaderno honen hirugarren atalean, gizarte zibileko erakundeak garapenaren eraginkortasuna ulertzeko proposatutako ereduak aurkezten dugu, Istanbulgo Adierazpenean jasotako zortzi printzipioak ardatz hartuta. **ALBOANek** printzipio horiekiko erabateko atxikimendua adierazten du, eta bost balioren gainean eraikitako esanahi berrantolatua proposatzen du, berezko ikuspegi eta hizkera baliatuta.

Bildumako **hirugarren koadernoan ALBOANen** eta **ENTRECULTURASen** arteko lankidetzaren emaitza da. Aldaketa sakonean dagoen munduak gaur egungo na-

zioarteko testuinguruari begiratzen dio, lankidetzaren erakundeek dituzten erronkei arreta berezia emanaz. Lehenik eta behin, munduko egoeraren diagnostikoa egiten dugu, **desberdintasunen** gorakada azpimarratzen dugu, fenomeno globala den aldetik, eta planteatzen dugu Iparralde/Hegoalde banaketa klasikoa lausotzen ari dela, mugak aintzat hartzen ez dituen globalizazio-prozesuaren eremuan goraka doazen herrialdeen eragin gero eta handiagoaren ondorioz. **Nagusi den garapen-eredua** zalantzan jartzen dugu, eredu eutsiezina baita, indarkeria sortzen duena, eta ekonomiaren diktaduraren mendeko sistema politikoa ezagurri duena. Herritarrei dagokienez, gero eta **aniztasun** handiagoa azpimarratzen dugu, eta tokiko arloaren eta arlo globalaren arteko lotura sendoagoak. Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko arrakalaren pertzepzioan aldaketa haute-man dugu; herritartasun globala sortu da. Eskubideetan oinarritutako ikuspegia nazioarteko erreferentea da jada, eta emakumeak bigarren mailako herritarrak dira oraindik ere. Bestalde, **nazioarteko lankidetzaren sistema** berrantolatze-prozesuan dago, eta GGKE-ekiko lankidetzan oinarritutako eredu zalantzan jartzen da. Erabile eta finantziario-tresna berriak sortzen ari dira, Espainiako estatuko politika publikoak deuseztatze bidean daude, eta laguntzaren kalitatean aurrerabide txikiak egiten dira. Testuinguruaren irakurketa horren ildotik, berriazko zazpi erronka hauei aurre egin behar diete GGKE-ek: paradigma kultural berri baten **utopiaren** oinarriak jartzea, **herritartasun globala** eraikitzea, **erronka globalak tokiko eskaerekin** uztartzea, askotariko egileak antolatzea, gizarte-oinarriaren **hurbiltasuna** eta laguntza sortzea, **parte-hartze demokratikoa** sustatzea, eta erakundearen **iraunkortasunaren** alde egitea.

Bilduma honetako **laugarren koadernoak** euskal lankidetzaren deszentralizatuaren iragana aitortzen du, etorkizunari begiratzeko, instituzionalizatuaren eta krisiaren artean gauden honetan. Hiru zati ditu koadernoak. Lehenengo zatian, eraginkortasunaren diskurtsoak biltzen dituen lankidetzaren deszentralizatuaren **mitoak eta errealitateak** aurkezten ditugu, ikuspegi kritikotik, eta laburki azaltzen dugu nola planteatu den eztabaida hori euskal lankidetzaren eremuan. Bigarren zatian, Euskadiko zortzi erakunde publiko adierazgarrienek eta garapenerako lankidetzaren eremura funts gehien bideratzen dituztenek 2004-2011 epealdian finantzatuak nazioarteko lankidetzaren proiektuak aztertzen ditugu. Honako erakunde hauen proiektuak dira: Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak, hiru hiriburuak udalak, eta Euskal Fonda. Horrenbestez, proiektuen **deskribapena eta ezaugarriak** aurkezten ditugu, honako alderdi hauen berri emateko: lagundutako ekintzen bilakaera, tresnen araberako banaketa, lehenetsitako herrialde eta eskualdeak, lehentasuneko sektoreak, zeharkako alderdiak, eta proiektuen

jarraitutasuna. Koadernoak agerian jartzen ditu kalitatezko datuak eskuratzeko dauden **arazoak**, eta lankidetzak ekintzen eraginkortasuna eta kalitatea sakontasunez aztertzeko dauden mugak. Amaieran, honako behar hauek antzeman ditugu: **gardentasunaren eta kontuak ematearen** gaitan elkarrekin aurrera egitea; herritarren eta politikarien lankidetzak-politikekiko **konpromisoa eta atxikimendua** ziurtatzea, haien jarraipena bermatze aldera; erakundeetako esperientzien eta jardunbide egokien eraginkortasunaren eta kalitatearen alorrean egindako aurrerabideak **agerian jartzea; politiken koordinazio eta koherentzia** aurrera egitea; eta **konfiantza-harremanetan** oinarritutako lankidetzak-eredura igarotzea, “laguntza-katearen” eskema eta gehiegizko burokratizazioaren arriskua gainditzeko ahaleaginean.

Bilduma honetako **bosgarren koadernoak** euskal garapenerako lankidetzaren iragana aitortzen du, etorkizunari begiratzeko, sentsibilizazioaren eta mobilizazioaren artean gauden honetan. Bi zati ditu koadernoak. Lehenengo zatian, garapenerako hezkuntzarako politikaren azken urteotako ibilbidea aurkezten dugu, eta Euskadiko zortzi erakunde publiko adierazgarrienek eta funts gehien bideratzen dituztenek 2004-2011 epealdian finantzaturako garapenerako hezkuntzarako proiektuak aztertzen ditugu. Honako erakunde hauen proiektuak dira: Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak, hiru hiriburu-udalak, eta Euskal Fundazioa. Horrenbestez, proiektuen **deskribapena eta ezaugarriak** aurkezten ditugu, honako alderdi hauen berri emateko: lagundutako ekintzen bilakaera; zenbatekoak; laguntza zuzena; GGKE-en bidezko proiektu, ekintza eta hitzarmenak; lehentasunezko erakundeak; partzuergoen aldeko apustua; proiektuen jarraitutasuna eta tipologia; jorratutako gaiak eta lehenetsitako kolektiboak; tresnen araberako banaketa; lehenetsitako herrialde eta eskualdeak; eta lehentasunezko sektoreak. Bigarren zatian, **eraginkortasunaren diskurtsoaren** irakurketa kritikoa egiten dugu, garapenerako hezkuntzaren ikuspegitik. Amaitzeko, honako gai hauetan elkarrekin aurrera egiteko premia azaltzen dugu: informazioa eskuratzea, gardentasuna eta kontuak ematea; herritarrek eta politikariek lankidetzak-politiken aldeko konpromisoa eta atxikimendua bere egiten dutela egiaztatzea, haien jarraitutasuna bermatzeko; eta proiektuetatik eta hitzarmenetatik haratago doan garapenerako hezkuntzaren eredura igarotzea.

Bildumako **sei garren koadernoak** lankidetzak deszentralizatua eta jarduera humanitarioa hobetzeko giltzarriak planteatzen ditu. Jarduera humanitarioaren egungo testuinguruaren deskribapena abiapuntutzat hartuta, honako alderdi hauek azpimarratzen ditugu: **lankidetzak-sistemaren** eraldaketa sakonak, **eragile berrien**



sorrera, **krisi-arriskuen** ugaltzea, **krisien errepikapena**, eta ekintza humanitarioei buruzko **ikaskuntzak** eta nazioarteko **adostasun** handiak. Gero, lankidetzaren deszentralizatuak ekintza humanitarioan duen parte-hartzea deskribatzen dugu, **guztirako zenbatekoak** eta bilakaera eta beherakada azkarrak azalduz, eta, amaitzeko, Eusko Jaurlaritzak eta euskal toki-erakundeek abian jarritako ekintza humanitarioei buruzko datuak eta ezaugarriak aurkezten ditugu. Azken zatian, euskal ekintza humanitaria hobetzeko **gomendio** batzuk bildu ditugu, egile guztientzako gomendio **orokorrak** eta honako egile-talde hauei **berariaz** emandako gomendioak bereizita: administrazio publikoak, euskal GKEak eta landa-lanean diharduten erakundeak.

**Zazpigarren koadernoak** lankidetzaren deszentralizatuaren espezializazioari buruzko galdera planteatzen du; zehazki, deszentralizazioari laguntzeko jardueran espezializatzeko aukerari buruzko galdera planteatzen du. Galdera horri erantzuteko, espezializazioari eta lanaren nazioarteko banaketari buruzko gaien alorreko eztabaidaren elementuak azaltzen ditu, eta “deszentralizazioarako laguntza” **definitzeko bi modu** hauek proposatzen ditu: i) estatu-mailako edo maila beheargoko erakunde publikoek laguntzea, deszentralizazio-prozesua sendotzeko behar diren erreforma juridiko eta politikoak egiteko; ii) estatu-maila baino beheargoko gobernuei laguntzea, zerbitzu publikoak hobeto kudeatzeko gaitasunak indartzearen bitartez. Bestalde, **ikuspegi teorikoak** eta **esperientziak eman dizkigun ikasbideak** azaltzen ditugu, deszentralizazio-prozesuetan laguntzeari dagokionez. Lankidetzaren agentziek baliatutako bi estrategia-motak aurkezten ditugu, bakoitzaren onurak eta eragozpenak zehaztuta. Amaitzeko, espainiar eta euskal lankidetzaren deszentralizatuaren **potentziala** esploratzen du koadernoak, deszentralizazioari laguntzea aintzat hartuta. Halaber, **espezializazioarako** abiapuntuen berri ematen du, bai eta espezializazioarako bete beharreko **baldintzen mapa** ere, erakundearen sendotasunari, jokoaren arauari eta egindako ibilbideari erreparatuta. Amaitzeko, deszentralizazioan espezializatzeari buruzko **eztabaidan sakontzeko** beharra azpimarratzen dugu, abian jarritako proiektuei buruzko datu gehiago ematen ditugu, “governuaren eta gizarte zibilaren” sektorean gobernu autonomikotik eta/edo toki-erakundetik nolabaiteko espezializazioa ikusten da, eta eztabaidan **atzerakada** hautematen da. Dena dela, eztabaida hori egokia da orain ere, lankidetzaren politiken aurkako jarrera gero eta zorrotzagoa duen inguru sozial eta politikoan izan arren.

**Zortzigarren koadernoak** lankidetzaren deszentralizatuaren alorreko espezializazioa aztertzen du, tokiko eta eskualdeko garapen ekonomiko alternatiboaren prozesuei laguntzeari dagokionez. Garapen-eredu nagusiaren **ikuspegi kritikoa**

oinarri hartuta, horrek guztiak lankidetzaren deszentralizatuaren dituen inplikazioak aztertu eta arlo horretan ageri diren hiru joera ideologiko nagusiak azaltzen ditugu: i) kontzeptuaren eta estrategien berrorientatze sakona; ii) garapen-kontzeptuaren zabaltzea, baina metodologia-esparruan aldaketarik egin gabe, iii) garapena nozio unibertsal gisa ukatzea eta kontzeptu hori baztertzaren egokitasuna. Bigarren atal batean, gizarte zibilak egindako ekarpenak aurkezten ditu koadernoak; zehazki, COMPARTE ikaskuntza-erkidegoaren ekarpenak, **ALBOAN** erkidego horretako kide baita. Horrenbestez, garapen ekonomiko eta produktibo alternatiboaren **ezaugarriak** identifikatzen ditugu, bai eta abian jartzeak dakartzan erronkak ere. Amaitzeko, koadernoak **sei erronka** proposatzen dizkio lankidetzaren deszentralizatuari, eta haien artean nabarmentzen da, batez ere, euskal lankidetzak tokiko eremuari buruzko hausnarketan egin dezakeen ekarpena, tokiko eta eskualdeko garapen-prozesu alternatiboak bultzatzeko bidean.

**Bederatzigarren koadernoaren** ardatza generoaren eraginkortasuna da, edo generoa eraginkortasunean. Aurkezpenean, garapenerako nazioarteko lankidetzaren generoaren kontzeptu eta ikuspegiak egindako **ibilbide luzea** deskribatzen dugu, **emakumeak garapenean** aintzat hartzen dituen ikuspegitik **generoa garapenean** kontuan hartzera, eta gero **genero-ikuspegiaren zeharkakotzera** egindako bilakaera azpimarratuz. Bigarren atal batean, lankidetzaren politiketan generoaren alde egindako apustuak aurkezten ditugu, elkarrengandik gero eta urrunago dauden **bi joera** hauek bereizita: alde batetik, goeko hamarkadako gailurretako garapen-kontzeptua eta konpromisoak, **eskubideen ikuspegia** argi eta garbi kontuan hartuta; eta, bestetik, ikuspegi teknokratikoa, generoari helburuen eta emaitzen ikuspegitik heltzen diona, eta lankidetzaren eta garapenaren beste kontzeptu batean oinarrituta dagoena. Hirugarren atal batean, koadernoak sakon aztertzen du **genero-ikuspegiaren jabetzea** euskal lankidetzaren deszentralizatuaren, bai erakundearen diskurtsoetan, bai praktikan, eta ibilbidearen bilakaera positiboari erreparatzen dio. Amaitzeko, ibilbideari buruzko balioespen batzuk planteatzen ditu koadernoak. Horretarako, egungo eztabaidak laburbiltzen ditu, eta **erronka orokor eta berariazkoak** planteatzen ditu. Erronka horien artean honako premia hau nabarmentzen da, batez ere: genero-berdintasuna eta emakumeen eskubideak izan daitezela eztabaida ofizialen funtsezko zati.

**Azken koadernoan**, gure ikuspegitik garapenerako lankidetzarako funtsezkoa den balio bati heltzen diogu; laguntzaile-lanari buruz ari gara. Laguntzea diogunean, honako hau ulertzen dugu: gizarte zibileko erakundeen eta lankidetzaren deszentralizatuaren eremuko eragileek **jarduteko modua eta estiloa**, harremanetan jorratu, zaindu eta bultzatu behar duguna, bai Hegoaldeko erakundeekin, bai

eta Iparraldeko gure ekintzaren talde eta eragileekin ere. Lan-estilo bat sustatu nahi dugu, GGKEok lantzeko, harremanak izateko modutzat hartuta eta gizarte-aldaketetan laguntze aldera, beste batzuekin jardunean, betiere **aniztasunean, elkarrizketan** eta **justizia bilatzean** oinarrituta. Koadernoak zenbait hausnarke-ta planteatzen ditu, garapenerako lankidetzaren eragile-eginkizunetan ari garen aldetik eginak, laguntzaile-lanean oinarritutako lan-estiloa sustatzeari buruz Hegoaldeko aliatuekin egindako elkarrizketetan haiak adierazi eta balioetsi du-tena aintzat hartuta.